



Usurbilgo Udala

USURBILGO OIARDO KIROLDEGIAN KIROL JARDUERA FISIKOAREN ETA UR SOROSPENAREN ESLEIPENA PROZEDURA IREKI BIDEZ ARAUTZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. XEDEA

Plegu honen xedea Usurbilgo Oiardo udal kiroldegian eman behar diren zerbitzuak zer baldintzatan eskaini behar diren zehaztea da. Zerbitzuak honakoak dira:

- Kirol jarduera fisikoa sustatzeko zerbitzua.
- Ur sorospen zerbitzua, igerilekua zabalik dagoenean.

2. BALDINTZA OROKORRAK

Zerbitzuaren enpresa esleipendunak nahitaezkoa izango du:

- Zerbitzuak eskaintzea Usurbil Udaleko Kirol arloaren ikuskapen teknikoaren eta ezarritako irizpideen arabera; Zentzu honetan, eskainiko diren jarduera fisikoko jarduerak Usurbilgo Udala eta esleipendunaren artean eskainiko dira, informazio gisara 1.Eranskinean 2015/2016 denboraldiko eskaintza jasotzen da.
- Kontratu honen xede diren zerbitzuak ez dira inola ere aldatuko, behin-behineko ezgaitasunaren, oporren, baimenen, oro har absentismoaren edo bestelako gorabeheren ondorioz, eta enpresa esleipendunak une oro bermatu behar du zerbitzu egokia.
- Erabiltzaileei emandako zerbitzuak kalitate baldintza nahikoak bete behar ditu.
- Enpresak memoria egin beharko du, burututako lanak kualitatiboki eta kuantitatiboki zehaztuz.
- Enpresa esleipendunarentzat ari den langile orok enpresak behar bezala kontratatuta egon behar du.
- Langileak lanak burutzeko beharrezkoak diren babes elementu guztiez hornitzea, indarreango prebentzio araudiaren arabera.
- Esleipendunak zerbitzua emateko Segurtasun eta Osasun Plan bat izan behar du. Plana teknikari eskudun batek onetsi behar du. Zerbitzua ematean langile orori gerta lekizkieken ezbeharrean erantzukizuna esleipendunarena izango da.
- Esleipendunari atxikitako ondasunen ordena eta zaintza errespetatzea eta errespetatu araztea. Horren jarraipena eta ikuskapena Usurbil Udaleko kirol arloaren eskumena da eta dagozkion aginduak emango ditu.
- Zerbitzuari atxikitako materiala, muntatzea, desmuntatzea, ateratzea eta jasotzea.
- Kirol teknikarien bidez, eskolak emateko edo instalazioak libreki erabiltzeko beharrezkoa den diziplina izatea, instalazioetako arauak betez eta betearaziz.
- Erabiltzaileen segurtasuna zaintzea.

3. ZERBITZUAK

3.1. Kirol jarduera fisikoa sustatzeko zerbitzua

Esleipendunak Udalak komenigarri iriztitako kirol jarduera fisikoak antolatuko eta garatuko ditu, eta kirol hastapenetako programak, guztientzako kirol programak, hirugarren adinekoei nahiz ahalmen urritasuna dutenei zuzendutakoak eta egokiak iruditzen zaizkion bestelako programak sustatuko ditu, aurrez onartuak izan ondoren.

Dena den, erantzukizun hauek izango ditu:



Usurbilgo Udala

- Bazkideentzako eta balizko erabiltzaile guztientzako kirol jarduera fisikoen plana diseinatzea, biztanleriaren sektore guztien beharrei erantzungo diena. Programa kirol sustapenerako udal teknikariari aurkeztuko dio, dagokion organoan onar dezaten.
- Programa hori urtero ebaluatzea kirol sustapenerako teknikariarekin batera eta programaren memoria aurkeztea.
- Erabiltzaile guztiei asetze inkestak egitea.
- Onartutako funtzionamendu eta erabileraren barne errejimenaren jarraipena egitea eta betetzea.
- Udal teknikariekin harremanetan egotea eta koordinatzea eta horretarako arduraduna izendatzea.
- Erabilgarri dauden materiala eta ekipamenduez arduratzea.
- Irakasleak koordinatzea, ordutegiei, bajei, ordezkapenei eta izan litezkeen gertakariei dagokienez. Enpresa esleipendunak uneoro zerbitzua eskaintzen dela bermatuko du egokitutako ordutegietan.
- Ikastaroak eguneratzea eta langileak birgaitzea, jarduera geldiarazi ez dadin.
- Ikastaroetara joateko baimena soilik zerbitzua kontratatuta dutenei emango zaie eta, horretarako, esleipendunak asistentzia kontrolatu beharko du. Halaber, ikastaroek gutxieneko eta gehieneko parte-hartzaile kopurua izango dute.

Kirol begiraleen oinarrizko funtzioak honako hauek dira:

- Programatutako jarduerak burutzea.
- Ikastaroetako parte-hartzaileei instalazioen erabilera arauak betearaztea.
- Ikastaroetako parte-hartzaileen jarraipena egitea (asistentziaren kontrola eta eguneroko txostenak) eta administrazioari helaraztea.
- Material biltegiak eta armairuak txukun mantentzea.
- Erabilgarri dagoen materiala zaintzea, inbentarioa egitea eta materialaren egoeraren berri ematea.
- Oro har, zerbitzuaren baitako agindutako funtzioak betetzea.

3.2. Ur sorospen zerbitzua

- Sorospen zerbitzuak aktiboki, zorrotz eta xehe beteko du erabilera kolektiboko igerilekuen alorrean indarrean dagoen araudia igerilekuen esparrua zabalik dagoen bitartean.
- Igerilekuen esparrua irekitzea eta ixtea zehaztutako ordutegietan.
- Soroslea bainu eremuan egongo da igerilekuen funtzionamendu ordutegi osoan. Erabilgarri dauden segurtasun elementuen erabilera eta kokapena jakin behar du. Bere lanpostuaren funtzioak beteko ditu soilik.
- Sorospen zerbitzua igerilekuak publikoarentzat zabalik dauden ordutegian eskainiko da, erabiltzaile zehatza (klubak, ikastetxeak...) edo instalazioetan burutzen ari den jarduera (aisialdia, entrenamendua...) gorabehera.
- Igerilekuen autokontrol programaren berri jakin behar du eta igerilekuen esparruan gerta daitezkeen larrialdi egoerei edo segurtasunik ezari erantzuteko agindutako arauak beteko ditu.
- Igerilekuko instalazioen, materialen eta uraren higieneko, garbitasunezko eta kontserbazioko egoera kontrolatzea.
- Igerilekuaren ura eta ingurua garbi mantentzeko lanetan laguntzea, horrela ur-xurgailu automatikoa hala behar denean jartzeaz eta jasotzeaz arduratuko da.
- Egin behar diren ur eta aire analisisen emaitza dagokion partean agertzea.
- Igerilekuetako erabilera arautzea eta lekuen banaketa antolatzea eta horren berri ematea.
- Igerilekuan kokaturik dagoen botikinaren materialaren egoera zaintzea eta bere erabileraren ardura.
- Botika kutxa beteta izateaz arduratuko da eta materiala falta denean arduradunari jakinaraziko dio.
- Lehen laguntzarako ekipamenduek ondo funtzionatzen dutela kontrolatuko du.
- Min hartutakoei lehen laguntza ematea eta osasun laguntza eskatzea, beharrezkoa den kasuetan.
- Zerbitzuaren funtzionamenduan gertaera aipagarriren bat gertatzen denean, afektaturiko zerbitzuaren ardura duen pertsonalari jakinaraziko dio eta, hala behar badu, dagokion intzidenteen partean agerraraziko du.



Usurbilgo Udala

- Oro har, zerbitzuaren baitako agindutako funtzioak betetzea.
- Oiaro kiroldegiko segurtasun eta larrialdi planean jasotako betebeharretan parte hartzea, Udalak adierazitakoari jarraituz.

4. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA ETA AURREIKUSTEN DIREN ORDU KOPURUAK

Funtzionamendu egutegi eta ordutegia hau izaten da.

4.1. Egutegia

2016an

- OIARDO kiroldegiko ITXIERAK:
urtarrilaren 1 eta 6an
uztailaren 2 eta 3an
abuztuaren 1-28bitartean
abenduaren 24,25 eta 31ean

Hurrengo urteetan bere egunean erabakitzen dena.

4.2. Ordutegia

2016an:

LANEGUNETAN 7:00-12:30 14:30-22:20 (21:00 igerilekua)
LARUNBATETAN 9:00-21:30 (21:00 igerilekua)
JAIETAN 9:00-13:30 (13:00 igerilekua)

Uztail eta abuztuan

lanegunetan 7:00-13:00 17:00-20:30
larunbatetan 9:00-13:00
jai egunetan 9:00-13:00

Hurrengo urteetan bere egunean erabakitzen dena

4.3. Kirol jardueren zerbitzuen aurreikusitako ordu kopurua gutxi gora behera

2016 irail-abendura bitarte 1.300 ordu

2017 urtarril-uztailera bitarte bere egunean erabakitzen dena 2.200 ordu inguru

4.4. Sorospen zerbitzuen aurreikusitako ordu kopurua gutxi gora behera

2016 irail-abendura bitarte 1.475 ordu

2016ean bere egunean erabakitzen dena, 2.025 ordu inguru

Datorren urterako gutxieneko egutegia eta ordutegia Usurbilgo Udaleko Kirol arloak onartuko du hilabeteko gutxieneko aurrerapenez.

5. GIZA TALDEA



Usurbilgo Udala

Enpresa esleipendunak langileak jarri beharko ditu kontratu honen xede den zerbitzua betetzeko beharrezkoak kopuruan eta kualifikazioan. Eduki beharreko titulaziori dagokionez:

- Ikastaroen eduki pedagogikoak bermatzeko arduradunak (3 hauetakoren bat):

- * Jarduera Fisikoen eta Kirolaren Zientzietan lizentziaduna edo gradua
- * Soin Hezkuntzako lizentziaduna edo gradua
- * Magisteritzako diplomatua edo gradua

- Ikastaro bakoitzeko irakasleak:

- * Dagokion federazioak edo erakundeak emandako monitore edo begirale tituluduna izatea.
- * **Salbuespen gisa, eta bakar-bakarrik administrazio pleguetan aurreikusten diren langileak subrogatzea derrigorrezkoa balitz, zerbitzua eman ahal izango dute aurretik aipatutako titulazioa ez dutenek, baina eman izan duten ikastaroko monitore agiria izan eta zerbitzu horiek baldintza agiri hau onartu baino lehen eman dituztenek.**

- Sorospen zerbitzurako:

- *Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak igerilekuetarako onartutako sorospen titulazioa edo homologatua izan beharko dute, indarrean dagoen legediak eskatzen duen aldiro eguneratua.

Baldintza Pleguan eta indarrean dagoen arautegian aurreikusten diren beste gainontzeko ukan-beharrak ere bete beharko dituzte (hizkuntz irizpideak, lan arlokoak, etab.).

Esleipendunak atxikitako langileek ez dute inolako lotura juridikorik izango Usurbilgo Udalarekin. Langile horiek kontratatzailearen menpean egongo dira soilik eta, horregatik, berez dagozkion eskubide eta betebeharrak guztiak izango dituzte. Enpresa esleipendunak lan arloan, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiene arloetan indarrean dauden xedapenak bete behar ditu, bere kargura dauden langileei dagokienez, eta inolaz ere ez du loturarik ezarriko Administrazioaren eta langileen artean.

Esleipendunak Usurbilgo Udaleko Kirol Arloari helaraziko dizkio langileen izen-zerrenda, horien lan kontratuak eta Gizarte Segurantzaren kotizazio ziurtagiriak. Dokumentazio horrek plegu honetan nahiz Administrazio Baldintzen Pleguan adierazitakoa bete behar du. Langileen izen-zerrendan izandako edozein aldaketa aurrez Usurbil Udaleko Kirol arloari jakinaraziko zaio eta edozein kasutan, ordezkari langileak, plegu tekniko eta administratiboetan zehazturiko baldintza eta ukanbehar guztiak beteko ditu. Kontratuari atxikitako langileak dagokien lana betetzeko adina prestakuntza izango dute, laneko jarrerari nahiz lan metodoei dagokienez.

Enpresa esleipendunak zerbitzuaren arduradun bat izendatu behar du Usurbilgo Udaren aurrean. Arduraduna izango da baliozko erreferente bakarra enpresa esleipendunarekiko harremanetan. Arduradunak komunikazio sistema mugikorra izango du, berehalako kokapena eta komunikazioa bermatzeko.

Esleipendunak, langileak lanak egiteko beharrezkoak diren babes elementuez hornitzeaz gain, laneko jantziak emango dizkie. Erabiltzen den material guztiak homologatua izan behar dute eta Administrazioak, Kontratuaren Arduradun funtzioak betetzen dituen pertsonaren bidez, homologazioaren ziurtagiria eska diezaioteko esleipendunari.



Usurbilgo Udala

1. ERANSKINA

USURBILGO OIARDO KIROLDEGIA

2015-2016 IKASTURTERAKO JARDUERA FISIKOKO IKASTAROEN ESKAINTZA

	IRAUPENA	EGUNAK	ORDUTEGIA
AEROBIK- STEP 2 egun astean	urria-ekaina	AT,OG	19:30 eta 20:30
MANTENTZE GIMNASTIKA 3 egun astean	urria-ekaina	AL,AZ,OL	9:00
YOGA astean behin (saioa 90')	urria-ekaina	AT	9:00, 15:30 eta 19:00
3. ADINA 2 egun astean	urria-ekaina	AL,AZ	10:00
3. ADINA 2 egun astean	urria-ekaina	AT,OG	10:00
ZUMBA 3 egun astean	urria-ekaina	AL,AZ,OL	9:15
ZUMBA 2 egun astean	urria-ekaina	AL,AZ	19:00
ZUMBA 2 egun astean	urria-ekaina	AT,OG	17:30
ZUMBA 2 egun astean	urria-ekaina	AL,AZ	15:15
ZUMBA TXIKI astean behin 2009, 2008, 2007, 2006	urria-ekaina	OL	16:45
ZUMBA GAZTE astean behin 2005, 2004, 2003	urria-ekaina	OL	19:00
ZUMBA GAZTE astean behin 2002, 2001, 2000	urria-ekaina	AZ,OL	18:00
SPINNING 2 egun astean	urria-ekaina	AT,OG	15:15
SPINNING 2 egun astean	urria-ekaina	AL,AZ	20:00
PILATES 2 egun astean	urria-ekaina	AT,OG	9:00
PILATES 2 egun astean	urria-ekaina	AL,AZ	9:00, 18:00 eta 19:00
BODYPUMP 2 egun astean	urria-abendua	AL,AZ	16:00
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA 2 egun astean	urria-abendua	AL,AZ	17:00
GAP 2 egun astean	urria-abendua	AT,OG	18:30
UR LUDOTEKA 2 egun astean 2011, 2012	urria-ekaina	AL,AZ ; AT,OG	16:45 eta 17:30 eta 18:15
UR LUDOTEKA 2 egun astean 2008, 2009, 2010	urria-ekaina	AL,AZ ; AT,OG	16:45 eta 17:30 eta 18:15
IGERIKETA ESKOLA 2 egun astean 2007, 2006, 2005, ...	urria-ekaina	AL,AZ ; AT,OG	19:00
HAURTXOAK 2 egun astean	Hilabetero	AL,AZ;AT,OG; LR,IG	16:30 eta 10:15 eta 11:00
IGERI HASTAPENA helduentzat 4 egun astean	hilabetero	AL,AT,AZ,OG	
HAURDUNEN IGERIKETA 2 egun astean	hilabetero	AT,OG	15:30
IGERI HOBEKUNTZA helduentzat 3 egun astean	hilabetero	AL,AZ,OG	
IGERIKETA GIDATUA 2 egun astean	3 hilabetero	AL,AZ	15:30
IGERIKETA GIDATUA 2 egun astean	3 hilabetero	AT,OG	20:00
TRIATLOIKO IGERIKETA astean behin	3 hilabetero		